



Xorien erregea

Xorien erregea hil da atzo. Berria, oihanez-oihan hedatu da: pikak murruxoriari erran dio, murruxoriak papogorriari eta papogorriak xoxoari...

Denbora guti barne, munduko xori guziek jakin zuten berria: Afrikako xoriek, Ameriketakoek... eta halako batean denak elkar-
tu ziren. 5

– Xorien erregea hil da. Beste errege bat hautatu behar dugu!

– Baina nolako erregea behar dugu? Xorietarik handiena ala zaharrena, ala ederrena?...

Biligarroa mintzatu zen lehenik: 10

– Ongi bazaizue, lehiaketa antola genezake: denak batean airatuko gara, zerua jo arte. Gutarik gorenik iganen dena erregea izanen da.

– Bai! Bai! Bai! Hori bera dugu egin behar.

Orduan, hegal azantz handian, xori guziak airatu ziren. Denak ote? Ez! Oiloak eta oilarrak laster gelditu ziren. Handik berehala gau xoriak ere, bereziki huntzak, eguzkia ikustearekin. Xori ttipiak, berriz, laster akitu ziren: papogorria, xoxoa, erresiñola, murruxoria eta biligarroa haritz baten gainean pausatu ziren. 15

Beste xoriek hegaldia segitu zuten eta titta ttipiak iduri zuten urrunera, zeruan. Arranoa, bere hegal luzeekin, nagusitzen ari zen: beti eta gorago, hodeien gainetik. 20

